

## **ETXEKOTZE PROZESUA**



### **SARRERA**

Jokoan dagoena, batez ere, zuen hauraren atxikimendua edo **lotura afektiboa** da. Gauza jakina da haurak amarekin, aitarekin edo ezagunak zaizkion pertsonekin duen loturak funtsezko eginkizuna betetzen duela **bere nortasuna eratzean**. Pertsona horiei atxikimendu-pertsonak deituko diegu.

Atxikimendu pertsonen artean *lehen* eta *bigarren mailakoak* bereizi behar dira. Senak esaten digu nor izango den atxikimendu pertsona nagusia: haurak harengana jotzen du min hartzen duenean edo logura duenean, hark ateratzen dio errazen irribarrea eta baretzen dio samurren negarra. Gainerakoak garrantziaren arabera, haurak pribilejio horiek eman ahala, mailakatzen dira.

Zenbat eta atxikimendu pertsona gehiago izan haurak, hobeak eta biziagoak izango dira irudi nagusiekiko afektuak. Horregatik ez zaio beldurrik izan behar beste figura batzuek figura nagusiarekiko hauraren maitasuna "lapurtzeari".

Bai **etxekotzea** bai egunero **banantzea** aparteko garrantzia duten bi une dira, loturak ez dezan sufritu edo kalterik jasan.

## ZER ESAN NAHI DU "NORTASUNA ERAIKITZEAK"?

Haurraren loturak kalterik jasaten ez duenean (banantzea desegokia izan delako, esate baterako), **lotura segurua** deitzen dena eraikitzen da. Haurra ziur dago beti izango dela hor bere atxikimendu pertsona bere beharra duenean (**oinarrizko konfiantza**). Segurtasun hori bere garuneko zirkuituetan finkatuta geratuko da eta, gertaera oso kaltegarriak jazotzen ez badira, **besteengan eta bere buruarengan konfiantza** duen haurra, eta gerora heldua, izango da. Izan ere, bere atxikimendu pertsonarekiko segurtasun hori izanda gero eta esplorazio ausartagoak egingo ditu, ondo asko baitaki, jolas horietan zerbait gertatzen bazaio, hor izango duela babesleku seguru hori. Atxikimendu pertsonenganako konfiantza horretatik sortzen da besteenganako eta norbere buruarenganako konfiantza. Eta konfiantza-giroan esploratzen badu, bere **adimena** eta **sormena** garatuko dira. Horregatik da hain garrantzizkoa lotura hau arreta handiz zaintzea.

Konfiantza eratzea bezain garrantzizkoa autoestimua eratzea da, eta haurrak babesa gaitasun sortu berrietan aurkitzen duen neurrian adoresentimendua eratzen joaten da (oinarrizko autoestimua). Aldi berean, miresmena adierazten dioten pertsonetikiko estimua eratzen da. Giro horretan sortzen dira plazerra asebetetzeko bide neurologikoak. Eta hori guztia harremanarekin, irribarrearekin, hizkera zezelarekin eta gorputz-zeinuekin harmonian gertatzen da. Seinaleak dira. Eta horren kontrakoa disarmonia da, eta horren seinalea eta adierazpena haurraren negarra eta oihi etsipengarriak dira. Disarmonia horrek eragiten dituen barneko prozesuek nortasun garrantza, iluna eta ezkorra eratuko dute.

## ZER DA ETXEKOTZEA?

Hezitzailea haurarentzat bigarren mailako pertsona, "izeba", bihurtuko den prozesua da.

### **NOLA GARATUKO DA PROZESU HORI?**

Pertsona gertukoena haurrarekin gelara joango da eta bertan geratuko da, hezitzailearekin batera gauzak eginez, **behar den denbora guztian** harik eta haurrak hezitzailearekin lotura berria eratzen duen arte. Haurrak ikusiko du bere atxikimendu pertsona nagusia pertsona berriarekin elkarreragiten ari dela. Lehenengo mailako pertsonak bigarren mailako pertsona horrengan duen konfiantzak erakutsiko dio haurrari **izan dezakeela konfiantza harengan**, eta horrela hasiko da berarekin **lotura afektiboa** ezartzen.

### **ZENBAT DENBORA BEHAR DA?**

Faktore askoren baitan dago: haur bakoitzaren izaera, haurrak pertsona gertukoena duen lotura mota (segurua edo ez-segurua), irudi nagusiak bigarren mailakoarekin haurraren aurrean igaro duen denbora eta bien arteko elkarreragina. Nolanahi ere, **haurrak esango digu** noiz duen **konfiantza** bigarren mailako pertsonengan eta noiz gera daitekeen pozik berarekin. Ez dituzue, beraz, zertan alderatu behar haur batzuen eta besteen denborak. Ongi egitea da garrantzizkoa.

#### **Gomendioak:**


1. **Ez da izan behar presarik.** Haurra ohartzen bada lehenbailehen amaitu nahi dugula aldi hori, atxikimendua aktibatuko da eta tinko helduko digu ez gaitezen banandu.
2. Ahal izanez gero, haurrarekin atxikimendu pertsona gertukoena etorri behar du, hau da, haurrarekin lotura nagusia ezarri duen senitarteko batek. Kontua ez da haurra ekartzea edo haurrarekin etortzea, baizik eta lotura nagusia bigarren mailakoari eskualdatzea.

Haurra bigarren mailako pertsonarekin ongi, jolasean, geratzen denean, horixe da erretiratzeko unea.

## EGUNERO BANANTZEA

Komeni da gogora ekartzea atxikimendua aktibatzen duten eta, ondorioz, banantzea eteten duten faktoreak logura, mina eta maite den pertsona aldentzea direla. Atxikimendu-irudi nagusia bigarren mailakoari eskualdatzeko prozesua goxo-goxo egin behar da, **presarik gabe**. Gomendatzen da etxetik presarik gabe irtetea, zakarkeria baino ez baitakar horrek, haurra asaldura (kutsu) emozionalik gabe irits dadin. Horretarako, jakinarazten dizuegu beranduxeago irits zaitezketela behar izanez gero.

Horrela jokatzek baduzue, zuen haurrak lasai utzi ahal izango dituzue, ondo asko jakinda zuek ematen diezuen maitasun eta arreta berberaz zainduko ditugula guk.



**ESKERRIK ASKO GUGAN KONFIANTZA IZATEAGATIK**